



## 145. OSOKO BILKURAKO AKTA

Zumaia herrian, 2020ko ekainaren 15ean, goizeko hamarrak eta erdietan, udaletxe honetako batzar aretoan Udalbatza eratu da ohiko bilkura egiteko, aurrez zehaztutako eguneko aztergaien arabera. Garaiz eta zuzen deitu direlarik, Udalbatzako kide hauek bertaratu dira:

Lehendakaria: Iñaki Ostolaza Esnal, jna.

Bertaratutako zinegotziak: Alex Oleden Antia, jna.  
Maidar Alberdi Yeregui, and.  
Marina Bidasoro Arocena, and.  
M. Aranzazu Gajate Telleria, and.  
Oier Korta Esnal, jna.  
Miren Aitziber Odriozola Etxezarreta, and.  
Ainhoa Illarramendi Azkue, and.

Ez bertaratuak: M. Arritokieta Iribar Egaña, and.  
Asier Arakistain Alberdi, jna.  
Jose María Azkue Castillo, jna.  
Maddi Aldalur Osa, and.  
M. Cruz Alvarez Aparicio and  
Iker Mardaras Arrieta, jna.  
Cristina Vicente Iciar, and  
Gotzon Embil Unanue, jna.  
Arritokieta Marañón Basarte, and

Idazkaria: Gorka Urgoiti Agirre



**1.- AURREKO BILERETAKO AKTAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA:  
(144. zbkia – 2020.05.28)**

144. Akta onartua izan da.

**2.- OGASUNA.-**

**2.1.- PROPOSAMENA.-**

**2.1.1.- UDALAREN 11.KREDITU ALDAKETA ONARTZEA, BIDEZKO BADA.-**

**KREDITU GEHIGARRIEN PROPOSAMENA**

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu berehala egitea. Izan ere, horiek atzeratuz gero sortuko litzatekeen kalteak eragin nabarmena izango luke zerbitzuen kalitatean. Aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Ondorioz, kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko proposatzen da, ondoko taulako xehetasunaren arabera:

Gastuen partida	Azalpena	Kredituak		
		Egungoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0100.601.165.00.02 2020	IDAE, 2.FASEA	0,00	1.176.795,75	1.176.795,75
<b>GUZTIRA</b>		0,00	1.176.795,75	1.176.795,75

Kod.	Partida	Azalpena	Zenbatekoa
a	2 0000.870.920.00.01 2020	DIRUZAINZTA GERAKINA GASTU OROKORRETARAK	1.176.795,75
<b>FINANTZAKETA GUZTIRA</b>			<b>1.176.795,75</b>

**KODEEN AZALPENA**

- a) Gastu orokorretarako diruzaintzako gerakina.
- b) Finantzaketa lotua duten gastuetarako diruzaintza gerakina
- c) Sarrera berri edo handiagoak.
- d) Kredituen baliogabetze baja.
- e) Kreditu eragiketak.

Zumaia, 2020ko ekainaren 9an

Alkatea



Eta,

**3.- HIRIGINTZA.-**

**3.1.- PROPOSAMENA.-**

**3.1.1.- IDAEKO DIRU LAGUNTZETAN PARTE HARTZEKO ESPEDIENTEAREN ONARPENA, BIDEZKO BADA.-**

**ZUMAIAKO UDALEKO OSOKO UDALBATZARAKO PROPOSAMENA**

Zumaia Udalak herriko kanpoko argiteria-instalazioetan eraginkortasun energetikoa hobetzeko bigarren faseko lanak egiteko asmoa du. Horretarako, EKITERMIK enpresak dagokion memoria deskribatzailea egin du.

Ikusi da 616/2017 Errege Dekretua, ekainaren 16koa, 2014-2020 aldirako hazkunde jasangarriko FEDER programa operatiboaren esparruan karbono gutxiko ekonomiara pasatzea errazten duten toki-erakundeen proiektu bereziei diru-laguntzak zuzenean ematea arautzen duena.

Kontuan hartuta egin nahi diren lanak adierazitako programarekin bat datozeela,

**ERABAKIA:**

1.- 616/2017 Errege Dekretuan araututako prozedura berariaz onartzea eta deialdian parte hartzea onartzea, Zumaia udalerriko kanpoko argiteria-instalazioetan energia-eraginkortasuna hobetzeko bigarren faseko lanak egiteko.

2.- Diruz lagundu daitekeen proiektu berezia osatzen duten jarduerak eta hori gauzatzeko aurrekontu-zuzkidura onartzea.

Gauzatze materialaren aurrekontua:	972.558,47 €
% 21 BEZ:	204.237,28 €
Kontrataren aurrekontua, guztira:	1.176.795,75 €

3.- Zumaia kanpoko argiteria-instalazioetako eraginkortasun energetikoa hobetzeko bigarren fasearen memoria deskribatzailea onartzea. Memoria deskribatzailea EKITERMIK enpresak idatzi du, eta bertan azaltzen dira egin beharreko jarduketak.

Bigarrena eta hirugarren puntuak gai berdinekoak dira IDAEko diru laguntzaren prestaketa,

**Aldeko botoak: 8 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**



**ERABAKIA:** Proposamena tratatzea onartzen da

Kreditu aldaketa, ogasunean eh! puntuz puntu joango gara, bestela nahastu egingo gara eta ..

**Aldeko botoak: 5 boto ( EH BILDU )**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 3 boto ( EAJ-PNV )**

**ERABAKIA:** UDALAREN 11.KREDITU ALDAKETA ONARTZEN DA.-

Orain pasatzen gara hirugarrenko puntua hirigintzako proposamena onartzen den edo ez puntu hau ekartzearen proposamena

**Aldeko botoak: 8 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** Proposamena tratatzea onartzen da

Eztabaidatuta bezala lagatzen dugu eta orain proposamena bozkatuko dugu,

**Aldeko botoak: 8 boto (5 EH BILDU, 3 EAJ-PNV,)**

**Kontrako botoak: 0**

**Abstentzioak: 0**

**ERABAKIA:** IDAEKO DIRU LAGUNTZETAN PARTE HARTZEKO ESPEDIENTEA ONARTZEN DA.-



#### 4.- 2020ko UZTAILAK 12 - EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK - HAUTESKUNDE MAHAIKIDEEN ZOZKETA

Datorren ekainaren 12an ospatuko dira 2020 uztailak 12 Eusko Legebiltzarrerako Hauteskundeak,

Ikusirik hauteskunde egutegiak izendatzen dituela ekainaren 13tik 17ra bitartean (LOREG 26.4 artikulua araberak) mahaikideen zozketa egin daitekeela, alkateak ezohiko osoko bilkuran gaia tratatzea erabaki du.

Beraz, emaitza honakoa da:

#### -2020 UZTAILAK 12- EUSKO LEGEBILTZARRERAKO HAUTESKUNDEAK HAUTESKUNDE MAHAIKIDEEN ZOZKETAREN EMAITZA

<b>PRESIDENTE</b>	72435925R	44146757M	72458938Z	73265240M	72511895W	35770126C	15371366Y	72458439K	15946526M	15385127J
1º Suplente	15356772V	72540015Q	44332744Z	72544495B	72462925E	44135576W	46779016Y	72458288P	72483374R	44171820K
2º Suplente	44145953Y	72503366Y	15392801M	15949944L	44154980V	44129720B	15883916R	15974086B	35767576T	72435868J
<b>1º VOCAL</b>	72442776K	15936764H	72452512M	72451731Y	15903371K	78928463F	44128907A	73047913M	72598791G	73264250G
1º Suplente	15343172X	14909585L	44171876P	34344320F	72458299L	35778178E	73032716B	44142401L	72518027Q	72835747Z
2º Suplente	15390765Q	72506344V	72422101T	34095313K	72500527L	44141164R	72458602T	72444007X	15964763A	34084275T
<b>2º VOCAL</b>	72546747D	72435825Q	15399563M	15958838N	72534584J	72478304Z	72477418W	29031217L	72593609C	15901045H
1º Suplente	72462941S	15912153V	72429185T	52226477D	72458360B	15957256V	72438322Y	72444070G	34088844S	15965191V
2º Suplente	34085488V	72458651A	72422193T	72429090C	15359133D	72492822L	72496135C	15903906G	34350996J	44136630K



**Zumaia Udala**

2020IAKU0006-A20/3858

Eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, Alkate Lehendakariak bilera amaitutzat eman du, goizeko hamaikak hamar gutxi direnean eta nik, Idazkariak, fede ematen dut.

Idazkaria

Dokumentu kod./Cod. Documento	2020IAKU0006-A20/3858	
Dokumentu Egiaztatzailea Verificador de documentos	<a href="https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAB40S9.sjbU">https://uzt.gipuzkoa.eus/PortalV/r/eu/81/AAAAB40S9.sjbU</a> 000.0081..AAAAB40S.9.sjbU	